

**ALKATETZA  
DEKRETUA**

2020 000001928

**Espediente-zenbakia:** 2020/KON\_NE\_G0002**Xedea****Berdintasun plana exekutatu** eta ekintzak garatzeko zerbitzuaren kontratazioa hutsik deklaratzeko proposamena**Aurrekariak**

Lehenengoa.- Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 2an hartutako erabakiaren bidez, KON\_NE\_G0002 kontratazio-espeditentea hasi zen, berdintasun plana exekutatu eta ekintzak garatzeko zerbitzu kontratuari buruzkoa.

Bigarrena.- Prozedura horren publizitatea Bermeoko Udalaren kontratatzaile-profilean eta Euskadiko Sektore Publikoko Kontratazio Plataforman argitaratu zen.

Hirugarrena.- Lizitazio prozeduran Gisma Asesoramiento, S.L. enpresaren eskaintza bakarra aurkeztu zen, espeditentean dagoen eginbidean ageri den bezala.

Laugarrena.- 2020ko uztailaren 27an, kontratuaren arduradunak aurkeztutako dokumentazio administratiboa kalifikatu zuen, eta zuzendu daitezkeen akats eta omisio hauek atzeman zituen:

- DEUC dokumentua osatu gabea
- Komunikazioak elektronikoki bideratu ahal izateko helbide elektronikoa jasotzen duen adierazpen falta (VI. Eranskina)
- Kaudimen ekonomikoa daukalaren egiaztapen falta, IX. Eranskinaren arabera
- Enpresak administrazioan aritzeko lanak burutzen 3 urteko eskarmentua daukalaren egiaztapen falta (VIII. Eranskina)
- Proposamen ekonomikoen falta, eskaintzaileak edo aurkezten duen pertsonak sinatuta (VII. Eranskina)

Bosgarrena.- 2020ko uztailaren 30ean, aurkitutako akatsak zuzentzeko eskatu zitzaion enpresa lizitatzailerari, eta hiru egun balioduneko epea eman zitzaion, zuzentzeko errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita. 2020ko abuztuaren 3an enpresak jakinarazpena jaso zuen.

Seigarrena.- Akatsak zuzentzeko emandako epea igaro ondoren, Gisma Asesoramiento, S.L enpresak ez du aurkeztu aurkitutako akatsak zuzentzeko dokumentaziorik.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004BA8B00N5V1P7W6Y3V3

**Sinadurea eta data**ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 17/08/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/08/2020  
14:14:02

EXPEDIENTE ::

2020KON\_NE\_G0002

Data: 27/03/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia



Zazpigarrena.- Zuzentzeko errekerimendua epearen barruan eta behar bezala jakinarazi denez, eta bete ez denez, lizitatuak eskaintzari uko egin diola ulertzen da, azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrarekin batera, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsia.

## Argudioak

Lehenengoa.- SPKLren 141. artikulua eta esleipen-prozedura arautzen duten baldintza agiri administratiboan 25. klausulak erantzukizuneko aitortza eta bestelako dokumentazioa zuzentzeko aukera ezartzen du, bai eta 1098/2001 EDaren 81.2 artikulua ere; izan ere, zuzentzeko izapide hori enpresa lizitatuak aurkeztutako dokumentazio administratiboa eta DEUC aztertzean ikusten diren ondorio edo omisioei dagokie.

Hala, baldintza agiri administratiboan 25. klausulak hau ezartzen du: *“proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, proposamenei gutun azalak irekiko dira, aurkeztutako dokumentazioa aztertuko da eta bertan antzematen diren akatsak edo omisioak zuzentzeko epea eman ahal izango da”.*

Bigarrena.- 1098/2001 EDaren 83.5 artikulua araberan *“baztertutako proposamenei dagozkien eskaintzak kontratua esleitzeko prozeduratik kanpo geratuko dira, eta proposamen horiek dituzten eskaintzak ezin izango dira ireki.”*

Hirugarrena.- Bidezkoa da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 150.3. artikuluko 2. paragrafoa aplikatzea. Artikulu horrek honako hau ezartzen du: *“ezin izango da lizitaziorik eman gabe deklaratu, baldin eta eskaintza edo proposamen onargarriren bat badago, pleguen arabera onargarria ez bada.”*

Agindu horretatik ondorioztatzen da kontratazio-organoak lizitazio bat eman gabe utz dezakeela, dela eskaintzarik aurkeztu ez bada, dela eskaintzok pleguen arabera onargarriak ez badira.

Laugarrena.- Bestalde, 9/2017 Legearen 151. artikulua honakoa dio: *“1. Adjudikazioaren ebazpena arrazoitu egin beharko da, eta hautagai eta lizitatuak jakinaraziko zaie, eta kontratatuaren profileen argitaratu beharko da 15 eguneko epean.*

*2. 155. artikulua 1. apartatutan ezarritakoa alde batera gabe, aurreko apartatuak aipatzen dituen jakinarazpenak eta argitalpenak behar adina informazio eman beharko dute adjudikazio-prozeduran interesa dutenek modua izan dezaten adjudikazioaren*



*erabakiaren aurka behar besteko oinarriarekin errekurtsioa aurkezteko eta informazio horretan, besteak beste, honako hau jaso beharko da:*

- a) Baztertutako hautagaiei dagokienez, hautagaitza ez onartzeko arrazioen laburpena.*
- b) Adjudikazio-prozeduratik kanpo geratu diren lizitatuzaileei dagokionez, haien eskaintza ez onartzeko arrazoiak, (...)."*

Kasu honetan, zuzentzeko eskatutako dokumentazioa ez da epe barruan aurkeztu, hortaz, lizitatuzaileak eskaintzari uko egin diola ulertzen da eta proposamena baztertu beharra dago.

Orobat, eskaintza bakarra jaso denez, lehiatzaile bakarra baztertzeak, zuzenean prozedura hutsik deklaratzeari dakar, eta erabaki horren berri ematea lehiatzaileari.

Bosgarrena.- Erabakia hartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, kontratua esleitzeko ahalmena alkateari dagokio. 2019ko ekainaren 21eko 1479 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta, baina 2019ko abenduaren 17ko 2952 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, oporraldietan (Aste Santua, abuztua eta gabonak) aipatutako organoari eskuordetutako eskumenak alkateak abokatu ditu.

### **Erabakia**

Goian aipatutakoa kontuan hartuta, hurrengoa erabakitzen dut:

LEHENENGOA.- Berdintasun plana exekutatu eta ekintzak garatzeko zerbitzuaren kontratazio-prozeduran Gisma Asesoramiento, S.L. enpresak egindako eskaintza baztertzea, 2020ko uztailaren 30ean bidalitako ofizioan, dokumentazio administratiboa zuzentzeari buruzkoan, eskatutako agiriak zuzendu eta erantsi ez direlako.

BIGARRENA.- Berdintasun plana exekutatu eta ekintzak garatzeko zerbitzuaren kontratazioa hutsik deklaratzeari, lizitatuzaileek ez dagoelako.


HIRUGARRENA.- Erabaki hau kontratatzailearen profilean argitaratzea, SPKLren 63.3 artikuluan xedatutakoarekin bat.

LAUGARRENA.- Interesdunari jakinaraztea, erabaki honen aurrean dituen errekurtsioak adieraziz.

BOSGARRENA.- Hurrengoko Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.



**Oharra:** sinadurea eta data orri-oinan .

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E40004BA8B00N5V1P7W6Y3V3</p>	<p><b>Sinadurea eta data</b></p> <p>ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 17/08/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 17/08/2020 14:14:02</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2020KON_NE_G0002</p> <p>Fecha: 27/03/2020</p> <p>Lekua: Bermeon</p> <p>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia</p>
---	--	--	---

